

Jaiotza gutxiago izan zen 2004ko bigarren hiruhilekoan, 2003ko aldi berean baino

4.908 ume jaio ziren 2004ko bigarren hiruhilekoan, eta horietatik %6,4 hirugarren eta ondorengo umeak izan ziren.

EUSTATEk egiten duen Jaiotzen Estatistikako 2004ko bigarren hiruhilekoko datuetan, 4.908 jaio ageri ziren, hots, aurreko urteko aldi berean baino %2 gutxiago. Lurraldez lurralde, Araban 724 haur jaio ziren, Bizkaian 2.548, eta Gipuzkoan 1.636.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2004ko bigarren hiruhilekoan jaioen erdiak baino gehiago, hots, 2.767 ume, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.826 ume (%37,2) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alabak %6,4ra iritsi ziren. Araban (%45,2), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (% 43,6) baino handiagoa izan zen, eta hori lurralde historiko horretan baino ez zen gertatu.

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urtetik gora zituen


Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela, eurak baitira erditzen direnen ia erdiak. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%25,6) eta 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %18,5 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatu zirenak %5,3 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %3,9 besterik ez zuen ekarri.

Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %21,2 hartu zuten eta puntu bat igo ziren 2003ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Araba (%19,8) izan zen Euskal AE osoko balioa baino txikiagoa izan zuen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina haurrak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen. Izan ere, ama ezkongabeen %17,8 14 eta 24 urte bitartekoak izan ziren.

1. Taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Alderatze-aula

	2004ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2004ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2003ko 2. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.908	100,0	4.595	100,0	5.010	100,0
Araba	724	14,8	636	13,8	763	15,2
Bizkaia	2.548	51,9	2.357	51,3	2.509	50,1
Gipuzkoa	1.636	33,3	1.602	34,9	1.738	34,7
Amaren adinaren arabera						
< 25 urte	259	5,3	253	5,5	259	5,2
25 - 29 urte	908	18,5	837	18,2	933	18,6
30 - 34 urte	2.290	46,7	2.119	46,1	2.385	47,6
35 - 39 urte	1.258	25,6	1.230	26,8	1.244	24,8
>= 40 urte	193	3,9	156	3,4	189	3,8
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.767	56,4	2.589	56,3	2.847	56,8
Bigarrena	1.826	37,2	1.727	37,6	1.886	37,6
Hirugarrena edo gehiago	315	6,4	279	6,1	277	5,5

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua



Iturria: EUSTAT

oin. 100 = b. b.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martin Gonzalez Hernandez

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es